

2018ko apiriletik ekainera bitarteko PPI ekarpenen zozketaren legezko oinarriak

BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA, S.A.k, helbidea Bilboko San Nikolas plazaren 4. zenbakian eta IFK zenbakia A48265169 duen merkataritza-sozietateak (aurrerantzean, «**BBVA**»), «2018KO APIRILETIK EKAINERA BITARTEKO PPI EKARPENEN ZOZKETA» izeneko promozioa antolatu du (aurrerantzean, «**promozioa**»), eta legezko oinarri hauek eraenduko dute (aurrerantzean, «**legezko oinarriak**»).

LEHENA.- Xedea

Promozio honen xedea da BBVAko bezeroak aparteko ekarpena egin dezaten sustatzea; gutxienez ehun (100) euroko zenbatekoko ekarpena BBVAren pentsio plan indibidual batera edo BBVAren gizarte aurreikuspeneko planera, webgune honen bitartez: www.bbva.es, edo BBVAren edozein ATM kutxazainen bitartez, jarraian adierazitako baldintzetan. Arestian aipaturako ekarpena egiten badute, legezko oinarri hauetako seigarren klausulan adierazitako egunetan egingo diren hiru (3) zozketetan parte hartu ahal izango dute parte-hartzaileek. Zozketa bakoitzean 1.000 €-ko (mila euro) saria zozketatuko da, legezko oinarri hauetan adierazitako baldintzetan.

BIGARRENA.- Indarraldia

Promozioan parte hartzeko epea 2018/04/02an hasiko da, 15:00etan (Espainiako penintsula ordua), eta 2018/06/30ean bukatuko da, 23:59an (Espainiako penintsula ordua), bi egun horiek barne (aurrerantzean, «**indarraldia**»).

HIRUGARRENA.- Lurralde-eremua

Promozio hau Espainiako lurralde osoan izango da baliozkoa.

LAUGARRENA.- Parte hartzeko baldintzak

- Edozein pertsona fisiko izan daiteke promozioaren xede, promozioaren hasiera datan 18 urte baino gehiago baditu, 2017ko abenduaren 31 baino lehen (egun hori barne) 64 urte baino gehiago bete ez baditu, eta Espainiako lurraldeko egoiliarra bada.
- Promozioan parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa da BBVA bezero izatea, kanal anitzeko kontratua sinatuta izatea, eta BBVA pentsio plan indibidual bat edo BBVA gizarte aurreikuspeneko plan bat kontratatuta izatea.
- Legezko oinarri hauek berariaz onartzea ezinbestekoa da promozioan parte hartu ahal izateko, eta, ondorioz, baita zozketetako batean aukeratua izan eta saria lortu ahal izateko ere.
- Parte-hartzaileek legezko oinarri hauek betetzen ez badituzte, promoziotik kanpo geratuko dira automatikoki, eta, irabazle suertatu badira, saria itzuli beharko dute.

BOSGARRENA.- Parte-hartzearen mekanika

Zozketetan parte hartzeko eta zazpigarren klausulan deskribatutako saria lortu ahal izateko, parte-hartzaileak legezko oinarri hauek onartu beharko ditu eta aparteko ekarpena egin beharko du, gutxienez ehun (100) eurokoa BBVAren pentsio plan individual batera edo BBVAren gizarte aurreikuspeneko plan batera, «aparteko ekarpena egin nire planera» atalaren bitartez, webgune honetako atal pribatuan: www.bbva.es, edo BBVAren edozein ATM kutxazainen bitartez (aurrerantzean, «**aparteko ekarpena**»). Indarraldian egin beharko da aparteko ekarpena.

Promozio honetan parte-hartze bakarra izan dezake pertsona bakoitzak, legezko oinarrietan adierazitako bi planetara ekarpenak egin baditu ere.

SEIGARRENA.- Zozketa

Promozioaren indarraldia amaitu eta gero, hiru (3) zozketa egingo dira (aurrerantzean, «**zozketak**»).

Zozketa bakoitzean irabazle bat (1) eta bi (2) ordeko aukeratuko dira (aurrerantzean, «**ordezkoa/k**»), badaezpada ere irabazleak edo aukeratutako ordenean hurrengo datorren ordezkoak saria ez duen jasotzen, ez dituen betekizunak betetzen edo ez dituen legezko oinarri hauek parte hartzeko finkatu diren baldintzak betetzen, edo ezin den pertsona lokalizatu. Guztira hiru (3) irabazle aukeratuko dira promozioan, bat zozketa bakoitzeko (aurrerantzean, «**irabazlea/k**»).

Irabazleak ez badu legezko oinarrietan finkatutako edozein betebeharrak betetzen, automatikoki deskalifikatu egingo da eta, saria emanda badago, saria itzuli beharko du nahitaez. BBVAk sariaren irabazleari jakinaraziko dio legezko oinarriak ez betetzeagatik deskalifikatua izan dela, eta arrazoizko epean (jakinarazpen horretan adieraziko da) emandako sariaren zenbatekoa zordunduko du diru-sarrera egin zen irabazlearen kontuan. Kasu horretan, legezko oinarrietako parte-hartze baldintzak eta zehaztapenak betetzen dituen hurrengo ordezkoari esleituko zaio saria.

Hiru zozketak 2018/07/04an egingo dira, Madrilako Notario Elkargo Ohoretsuko notario baten aurrean, dela BBVAren Madrilako egoitzetako batean, dela ondorio horietarako izendatutako notarioaren bulego profesionalean.

Parte-hartzaile bakoitzak zozketa batean (1) parte hartzeko eskubidea izango du.

Zozketetako batean parte-hartzaileak ez badago, BBVAk huts deklaratu du zozketa partikularra eta zozketa horri dagokion saria.

Notarioak zozketak egingo ditu notariotzaren plataforma telematikoa xede horretarako eskuragarri dauden aplikazioak erabiliz edo ausazkotasuna bermatuko duen beste edozein prozedura erabiliz. Zozketa bakoitzerako fitxategi bat prestatu eta emango zaio notarioari, euskarri fisiko edo digitalean, baldintzak betetzen dituzten edota legezko oinarrien baldintzak betetzen dituzten parte-hartzaileen guztizko zenbatekoarekin, alde batera utzirik irabazle edo ordezkoak izan direnak. Txartel bat esleituko zaio parte-hartzaile bakoitzari, zeinak zenbaki sekuentzial bat izango duen. Modu horretan, txartelen guztizkoarekin fitxategi bat prestatuko da, eta txartel horietako bakoitza parte-hartzaile batena izango da. Fitxategi hori zozketa bakoitzean erabiltzen da.

Hiru (3) zozketetako bakoitzean, inprimatutako kopia batean edo formatu digitalean jasota egongo da parte-hartzaileen guztizko kopurua, eta notarioaren esku geratuko da zozketari dagokion aktan eransteko; hartara, erabazlearen eta ezagutzen denean zein txartel izan diren saridunak, notarioak informatikako aplikazioaren bitartez egiaztatu ahal izango ditu irabazle suertatu diren parte-hartzaileen datuak.

BBVAren borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiak direla-eta ezin bada aurreikusitako datan egin zozketa, bertan behera geratuko da eta hurrengo egun baliodunera pasako da, zozketa egitea eragotzi duen arazoa konpondu ondoren. Hasiera batean aurreikusita zegoen datan egitekoa zen zozketan sartuko ziratekeen parte-hartzaileen zerrenda erabiliko da.

ZAZPIGARRENA.- Saria

Saria irabazleari zozketa bakoitzean emango zaizkion mila (1.000) euro dira (aurrerantzean «**saria**»).

Hiru (3) sari zozketatuko dira guztira (aurrerantzean, «**sariak**»); hau da, sari bana seigarren klausulari jarraikiz egiten diren hiru (3) zozketetako bakoitzerako.

Sariak ez du aldaketarik izango, ezta irabazleek eskatutako ordainik lortuko ere. Irabazle batek baino gehiagok sariari uko egiten badiote, ez zaio alternatibarik eskainiko.

ZORTZIGARRENA.- Iruzurra

BBVAk edo profesionalki promoziora lotuta dagoen edozein erakundek arazoren bat detektatzen badu, edo susmatzen badu parte-hartzaile batek galarazi egin duela promozioaren ohiko garapena, aldebakarrez bertan behera utziko du parte-hartzaile horren parte-hartzea. Horretarako, BBVAk beharrezko euskarri teknologikoak prestatu ditu, legez kontra saria lortzeko eta parte-hartzea hondatzeko asmoz egin nahi izan litezkeen jokabide iruzurrezko, anormal nahiz mingarriak detektatzeko. Hortaz, BBVAk beretzat gordetzen du edozein partaide erregistrotik ezabatzeko eskubidea, erakutsi badu edo susmatzen bada deskribatutakoaren arabera arauz kanpoko jokaera duela.

BEDERATZIGARRENA.- Sariaren jakinarazpena eta emateko baldintzak. Prozedura sarirako eskubidea galtzen bada

Irabazleei gehienez zozketa egin osteko hamabost (15) egun naturaleko epean jakinaraziko zaie irabazi dutela, irabazleek haien kontratuaren testuinguruan BBVAri emandako telefono-zenbakia erabiliz deituta; telefono-zenbakirik adierazi ez badute, e-mail bat bidaliko zaie adierazi duten posta elektronikora eta aurreko harremanetarako datu horiek izan ezean, bulegoko kudeatzailearen bitartez egingo da komunikazioa. Hiru (3) saiakeren ostean ez bada lortzen irabazlearekin telefonoz harremanetan jartzea, edo BBVAri telefono-zenbakirik komunikatu ez bazaio, edo irabazleak 7 eguneko epean irabazle dela jakinarazteko bidalitako mezu elektronikoa jaso duela adierazten duen berrespena ez badu bidali, saria ordezkoiari esleituko zaio, baldin eta legezko oinarrietan agintzen diren baldintzak betetzen baditu, seigarren klausulan ezarritako prozedurari jarraituz eta aukeraketa ordenean.

Irabazleak BBVAtik "sariaren onarpen eta hartze-agiria" (aurrerantzean "**onarpen eta hartze-agiria**") jasoko du, irabazle dela jakinarazi zaion dei edo mezu elektronikoa adierazitako posta elektronikoa (BBVAri telefono-zenbaki bat ez badio adierazi). Irabazleak zazpi (7) eguneko epea izango du, aipatutako BBVAren mezuia igortzen zaionetik kontaktzen hasita, onarpen eta hartze-agiriaren kopia igortzeko, behar bezala sinatuta eta eskaneatuta, eta kasuan kasu, BBVAren pentsio plan indibidualaren edo gizarte aurreikuspeneko planaren indarraldia egiaztatzeko eskatutako datu eta/edo dokumentazioarekin, posta elektronikoa honetara: **promocionesbbva.es@bbva.com**. Dokumentazioa jaso ondoren, **2018ko irailean bezeroaren kontuan ordainduko du BBVAk saria (baieztatzeke)**.

Irabazleak BBVAren hasierako komunikazioa ez badu erantzuten edo ez badu igortzen onarpen eta hartze-agiriaren kopia adierazitako epeetan, legezko oinarriak ez baditu betetze edo ezin bada lokalizatu, legezko oinarrietan agindutako baldintzak betetzen dituen ordezkoiari esleituko zaio saria, seigarren klausulan ezarritako prozeduraren araberrako aukeraketa ordenari jarraituz.

HAMARGARRENA.- Legezko oinarrien onarpena

Legezko oinarri hauen onarpenak haiekiko erabateko adostasuna dakar; horrez gain, horiek interpretatzeko garaian gatazkarik bada, BBVAk duen irizpidea onartuko da.

HAMAIKAGARRENA.- Erreklamazioa

Promozioaren erreklamaziorako epea indarraldiaren amaiera datan hasi eta lauogeita hamar (90) egun natural igaro ondoren amaitzen da.

HAMAIKAGARRENA.- Datu pertsonalen tratamendua

Datu Pertsonalen Babesaren Lege Organikoan (abenduaren 13ko 15/1999 Legea) ezarritakoa eta hura garatzen duen araudia betetz, BBVAk parte-hartzaileari jakinarazten dio promozio honetan ematen dituen datu pertsonalak BBVAren titulartasuneko fitxategi batean gehituko direla (egoitza soziala San Nikolas plaza, 4, 48005 Bilbo), helburu hauetarako:

- a) Promozioaren betearazpen, kontrol, jarraipen eta kudeaketarako.
- b) Saria emateko, irabazle suertatuz gero.

Parte-hartzaileak doan baliatu ahal izango ditu datuetara sartu, horiek zuzendu, ezeztatu eta horiei aurka egiteko eskubideak, BBVAren bulegoetako edozeinetan, posta arrunt bidez idatzia bidaliz BBVA Taldearen Bezeroentzako Arreta Zerbitzura (1598 postakutxatila, 28080 Madril) edo mezu elektronikoa bidaliz **servicioatencioncliente@grupobbva.com**

HAMAHIRUGARRENA.- Zerga-sistema

Promozio honetako mila (1.000) euroko sari bakoitzari Lege hauek aplikatuko zaizkio: azaroaren 28ko 35/2006 Legea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa eta Sozietateen, Ez-egoiliarren Errentaren eta Ondarearen gaineko Zergen aldaketa partzialari buruzkoa; abenduaren 27ko 26/2014 Legea, aurrekoa aldatzen duena; 439/2007 zenbakidun Errege-dekretua, zeinaren bitartez erregelamendua eta bere ondorengo aldaketak onartzen diren; martxoaren 5eko 5/2004 legegintzako errege-dekretua, zeinaren bitartez Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legearen testu bategina onartzen den (abenduaren 27ko 26/2014

Legearen bitartez aldatua); uztailaren 30eko 1776/2004 Errege-dekretua, zeinaren bitartez onartzen den Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zergaren araudia; azaroaren 27ko 27/2014 Legea, sozietateen gaineko zergarena; uztailaren 10eko 634/2015 Errege-dekretua, zeinaren bitartez onartzen den sozietateen gaineko zergaren araudia; Jokoaren erregelamendurako eta bat datozen eta haien garapenean agindutako beste xedapenetarako 13/2011 Legea. BBVAren ardura izango da konturako diru-sarrera edo dagokion atxikipena egitea, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (aurrerantzean, PFEZ), Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren edo sozietateen gaineko zergaren gain.

Aipatutako araudiarekin bat etorritik, parte-hartzaileei jakinarazten zaie ondare-irabazitzat hartzen dela salmentara edo ondasun edo zerbitzuetara lotutako joko, lehiaketa, zozketa edota ausazko konbinazioetan parte hartzeagatik lortutako saria. Sariaren balioa hirurehun euro (300 €) baino handiagoa denez atxikipenari lotuta dago. Ondorio horietarako, indarrean dagoen legeriak finkatzen duen atxikipen-tasa aplikatuko da; gaur egun, % 19 da Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko (Norvegia eta Islandia) egoiliarrentzat eta haietan iraunkorki kokatuta ez dauden ez-egoiliarrentzat, eta % 24 gainontzeko ez-egoiliarrentzat, salbu eta azken bi horietan aplikatzeko bada Espainiak harpidetutako zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmena, hala izanez gero hitzarmenean xedatutakoa aplikatuko baita. BBVAk irabazlearen kontutik sartuko du atxikipena altxorren.

Saria lortzeak irabazlearen zerga-sisteman izan ditzakeen eragin fiskalak, bere kontura kudeatu beharko ditu, eta horregatik BBVA edozein arduraz libratzen da. Horretarako, BBVAk irabazlearen esku jarriko du sariari buruzko datuak jasotzen dituen ziurtagiri bat.

Partaide irabazleak sariaren ematea baino lehen berretsi beharko ditu bere datu pertsonalak eta horretaz gain, bere identifikazio pertsonalerako dokumentuaren kopia eman beharko du (NANa, egoiliarren txartela, pasaporte, etab.). Bederatzigarren klausulan adierazitako atxikipena gauzatu ahal izan dadin, irabazleak onartze- eta hartze-agiria sinatu beharko du. Bestela, saria hartzeko eskubidea galduko luke.

Sariak emateko beharrezkoak diren irabazlearen datu pertsonal eta fiskalen betetzeak derrigorrezko izaera du; beraz, datu horietako edozein ez izateak lortutako saria izateko eskubidea galtzea eragingo du.

HAMALAU GARRENA.- Erantzukizuna

BBVA ez du erantzukizunik hartuko gerta daitezkeen galera, hondatze, lapurreta, atzeratze edo hirugarren batzuei edo Interneti egotz dakizkieken bestelako egoeren gain, zeinak promozioan parte hartzean eragina izan dezaketen.

BBVAk beretzat gordetzen du edozein parte-hartze edo parte-hartzaile kanpo uzteko eskubidea, datuen edo promozioaren erabilera desegokiaren susmoak baditu.

Halaber, BBVAk bazter uzten du edonolako kalte-galeren gaineko erantzukizun oro; izan ere, nahiz eta segurtasun neurriak hartu, baliteke parte-hartzaileek oker erabiltzea zerbitzu eta edukia. Horien artean bereziki, baina ez esklusiboki, baztertu egiten du erabiltzaile batek edozein komunikazio motatan hirugarren baten nortasuna ordezkatzuz gero sor litekeen kalte-galera orenen gaineko erantzukizun.

HAMABOS GARRENA.- Legezko oinarrien kontsulta

Legezko oinarri hauek Madrilgo Notario Elkargo Ohoretsuko Valerio Pérez notario jaunaren aurrean gordailutu dira, eta bbva.es webgunean eskuratu daitezke.

BBVAk ahalmena du legezko oinarri hauetan aurreikusi gabeko edozein egoera ebazteko.

Parte-hartzaileak onartu egiten du BBVAk geroratu, laburtu, atzeratu, aldatu, ezeztatu edo eten egin dezakeela promozioa, bere kontrolatik at dauden ezinbesteko arrazoiak direla eta, eta konpromisoa hartzen du parte-hartzaileei egoera hori lehenbailehen jakinarazteko.

Legezko oinarri hauen edozein klausula baliogabetzat jotzen bada, horren eraginik ez duten gainontzeko klausulek indarrean jarraituko dute.

HAMASEI GARRENA.- Parte hartzeko argibideak

Parte-hartzaileek BBVAk igor ditzakeen argibideak bete beharko dituzte.

HAMAZAZPI GARRENA.- Parte hartzeko mugak

Promozio honetan parte hartzetik kanpo geratzen dira berau antolatzen parte hartu duten pertsonak, jardunean ari diren langileak eta aurretiaz erretiratu direnak, BBVAkoak nahiz haren enpresa taldekoak.



Legezko oinarri hauetan adierazitako baldintzak bete arren, ezingo du zozketan parte hartu ezein parte-hartzailerik, baldin eta, indarraldiak irauten duenetik saria ematen den arte, irabazle suertatuz gero, kopuru mugaeguneratu eta galdagarria zor badio BBVAri. Aipatutako egoeran, parte-hartzaileak saria jaso aurretik erregularizatu beharko du egoera. Saria emateko eguna iritsitakoan parte-hartzaileak ez badu erregularizatu zorra, saridun egoera galduko du.

HAMAZORTZIGARRENA.- Legeria eta forua

Edozein gatazkatan, Espainiako legeria aplikatuko da Madrilgo epaitegi eta auzitegietan.